

Liburuak

KRITIKA

Unplugged.
Luis Garde.
Kutxa Fundazioa.
96 orrialde. 7 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona



Zer nahi duzu bihar?

LIBURUAREN kontrazalean Kutxaren eslogana dakar Luis Garderen azken poema liburuak, Irun Hiriko Literatur Sarietako aurtengo irabazlearen lanak. “Zer nahi duzu bihar?” galdetu orde “zer nahi duzu atzo?” galdetu behar genuke behar bada, saudadearen bidetik. Atzera begira idatzitako liburu kriptikoa da *Unplugged*, arean malenkoniatsua, baina ez tristea. Narrati-boa, baina ez lirika bakoa. Hirugarren pertsonan pentsatua, baina norberari buruzkoa.

Iritsi ezin gaitezkeen eremuak esploratzeko baliabidetzat darabil poesia iruindarrak, iluntasunean argi printzak bilatzen dituelarik, eta gertakarietan era guztietako seinaleak. Bizitza modernoaren gailu, presa eta hustasun guztiak azaleratzen dira *Unpluggeden*, baina betiko galdera zaharrak gailentzen dira azken finean: Norantza goaz? Ze zulotan galtzen da galtzen dena? Tristeziaren zauriak zelan senda daitezke?

“Kontakizun,/ abesti,/ istorio edo poema guztiak,/ leiho eta gizaki batekin hasten dira./ Gizaki bat bere leihotik begira./ (...) Ni ere leihoetan zehar begiratzen dudana naiz./ Horrela hasten da kaier hau”. Sarrerako poema honetatik bertatik hasita, Luis Garderen heteronomia leihoa dela nabari da, kristalezko talaia hori da poeta. Leihoak kanpora ematen du, baina baita norbere isla itzuli ere. Autoreak “beste niak” aurkitzen ditu leihotik kalera begira eta pertsonaiak, lekuak, fikzioa eta materiala eskaintzen dizkio bista horrek. Behatoki pribilegiatu horretatik besteei buruz idazten du poetak, bere barne-kezken istorioa eraikiz bezala.

Sakon iristeko gai da, uneka, gauza itxuraz axalekoetatik abiatuz. Kafe bat hartzeko darabilgun denbora-tarte laburra, esate baterako, eternitatearekin lotu dezake: ehun urtean aldatzen bagara, bost minutuan ere, halabeharrez, aldatu egiten gara. Dena dela, ideia unibertsal astun horiek helarazteko ez du idazleak uneoro trebetasun bera erakutsi. Irudien inflazioak eta ukitu pop-ak, orokorrean, ez diote bat ere mesederik egin mezuari. Uste dut irakurlearen atentzioa trebetasun eta txera handiz mantendu behar dituela poemategi batek, eta liburu honetan irakurlea ez, ematen du askotan idazlea bera aspertzen dela, eta poema zelan edo halan bukatu duela, ideia guztiz borobildu barik. Lerroak azken burura eramatea eta poema bat ontzea ez dira gauza bera. Aurten finagoak eta sakonagoak liburu asko argitaratu dira, ez direnak hitz-elkar-keta soilean oinarritzen. ■

Azkue, euskal nazioaren arkitektoa

Jurgi Kintanak bere doktorego tesiaren zati nagusia bildu du *Intelektuala nazioa eraikitzen*: R.M. Azkueren pentsaera eta obra liburuan. Ez da Azkueren biografia bat, lekeitiarrak, bizitzan landu zituen gaiei buruz ikertu du Kintanak: abertzaletasuna, prentsa, folklorea, filologia, musika, literatura... Horieta guztietan murgil-

du da historialari bilbotarra, Azkueren ekarpena zein izan zen bilatzeko. Kintanaren ustez, euskal nazio kulturala eraikitzen saiatu zen Azkue. Egun ordea, gutxi aipatzen dute haren lana euskal nazioaren fundatzaileak gogora ekartzean, nahiz eta lehen mailako pertsonaia izan zen garaiko eztabaidetan. Liburu mardul honek aukera eskaintzen du pertsonaia bere lekuan kokatzeko. ■



Intelektuala nazioa eraikitzen...
Jurgi Kintana.
Euskaltzaindia.
664 orrialde.
18 euro.

RIEV aldizkariaren zenbaki berria

Eusko Ikaskuntzak argitaratzen duen *Revista Internacional de los Estudios Vascos* (RIEV) aldizkariaren azken zenbakian hainbat gai landu dituzte sakontasunez. Mikel Navarrok berrikuntzako sistema erregionalez eta klusterrez idatzi du *Tribuna* sailean. Sail berean euskal elizaren azken urteetako historian izan diren posizio kritikoei buruz jardun da Felix Placer; Susana Torradok *Ama Lur* filmari buruz idatzi du; Jesus Maria Ramosek Euskal Herriko beiragintzaz; eta Juan Maria de Velascok bioetikaren jatorriaz eta garapenaz. Eduki horiez gain, aldizkari ohiko sailak aurkituko ditu irakurleak: *Noticia* atalean erreportaje ugari plazaratu

dituzte, eta ez dira falta, liburu iruzkinak eta dokto-re-tesien zerrenda. ■



RIEV 54.
Batzuen artean.
Eusko Ikaskuntza.
323 orrialde.
14 euro.